

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarrek Espainiako batez bestekoa baino % 50 paper eta kartoi gehiago birziklatu zuten 2013an

Pertsona bakoitzak 32,2 kilo laga zuen batez beste edukiontzi urdinean

Jueves, 30 de octubre de 2014

Nafarrek Espainiako batez bestekoa baino % 50 paper eta kartoi gehiago birziklatu zuten 2013an; urte horretan, pertsona bakoitzak 32,2 kilo laga zuen edukiontzi urdinean.

Foru Komunitateak Estatuko batez bestekoa ere zapi puntutan gainditzen du ontzi arinetan (plastikoa, metala eta brikak). Izan ere, 19,6 kilo bildu ziren pertsonako edukiontzi horian, Nafarroako Gobernuak eta [Ecoembes](#)ek emandako datuen arabera; azken erakunde horrek ingurumena zaintzen du Espainiako etxeko ontziak birziklatuz eta ekodiseinatuz. Hori guztia aintzat hartuta, guztira etxeko ontzien 19.115 tona laga dira edukiontzi hori eta urdinetan.

Bilketa hori Foru Komunitatean banatutako 13.687 edukiontzi hori eta urdinetan egin zen, 2012an baino 632 edukiontzi gehiagotan.

Inpropioen ehunekoan, hau da, edukiontzi horian gaizki lagatako hondakinak, nafarrek ere birziklapenarekiko eta ingurunearen babesarekiko kontzientziazio-maila handiagoa dute; izan ere, hondakin-mota hori % 22,3koa zen, 2012ko zifra baino hiru puntu gutxiago, eta Estatuko batez bestekoaren azpitik (% 30).

Gainera, alde horretatik, Foru Komunitateko herritarrek birziklapenarekiko erakutsitako sentsibilitatea nabarmendu behar da, hamar pertsonatetik bederatzik baieztatzen baitu egunero bereizten dituela ontzi guztiak, Ecoembesek biztanleen ohitura eta jokabideen azterketari buruz egindako azken txostenaren arabera